

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

196/2019 Foru Agindua, uztailaren 3koa, zeinaren bidez baimena ematen baita behin-behineko izendapenak egiteko, Gasteizko udalbatzako idazkari nagusia ordezkatzeko oporretan dagoen bitartean

Gasteizko Udalak atal honi jakinarazi dio behin-behineko izendapen baten beharra daukala, oporretan Martín Gartzandia Gartzandia udalbatzako idazkari nagusia ordezkatzeko.

Hori dela-eta funtzionario hauen behin-behineko izendapena proposatzen du:

Cristina Núñez Saseta andrea: 2019ko uztailaren 8tik 14ra (biak barne) eta 2019ko uztailaren 29tik abuztuaren 11ra (biak barne).

Ricardo Solaun González jauna: 2019ko abuztuaren 12tik irailaren 1era (biak barne).

Bat etorritz estatu osorako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuaren 52.4 artikuluan xedatutakoarekin.

Kontuan hartu da Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunaren abenduaren 27ko 27/2013 Legeak 25. artikuluan xedatutakoa. Lege horrek Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen du, 92.bis artikulua berria sartuz, non zehazten baita toki korporazioetan behin-behineko langileak izendatzeko aginpidetza eremua.

128/2018 Errege Dekretu horren hirugarren xedapen gehigarrian arautua betez, eta Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren 52/1992 Foru Arauaren 40. artikuluan jasotzen diren eskudantzien ondorioz, eta nire eskumenekoak diren ahalak baliatuz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Behin-behinean izendatzea ondoren zerrendatzen diren funtzionarioak Gasteizko Udaleko udalbatzako idazkari nagusiaren lanpostuari dagozkion eginkizunak bete ditzaten, lanpostuaren titularrak oporrenatik kanpoan den artean:

Cristina Núñez Saseta andrea: 2019ko uztailaren 8tik 14ra (biak barne) eta 2019ko uztailaren 29tik abuztuaren 11ra (biak barne).

Ricardo Solaun González jauna: 2019ko abuztuaren 12tik irailaren 1era (biak barne).

Bigarrena. Izendapena aurreko apartatuan aipatutako eperako bakarrik izango da.

Hirugarrena. Foru agindu hau jakinaraztea interesdunei, Gasteizko Udalari eta Eusko Jaur-laritzako Administrazio Erregistroen eta Toki Araubidearen Zuzendaritzari, bai eta foru agindu hau ALHAOn argitaratzeko agintzea ere.

Gasteiz, 2019ko uztailaren 3a

Diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreekaren Saileko foru diputatua
MARÍA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO

Lurralde Oreekako zuzendaria
IÑAKI GUILLERNA SAENZ